

Gazteak eta euskara zonalde euskaldun batean

Luis Agirre
Ana Franko

“¿EUSKERA MAITE AL-DEZU? Ta, Tolosa'ko kalean Euskara aurren ezpañetatik igesi dijoa. ¿Urte asko al-dira, nun-nai, neska-mutilen jolasetan, euskera utz-utzezko beñiketak entzuten zenituala?... Orain, ostera, amañ aldiz Tolosa'ko bira egingo dezu, ta añituta etxeratuko zera amabost urtetik berako tolosa bati euskerazko itzerdirik añapatu ba-diozu. ¿Egia ala gezuñ?”¹

Aspaldikoa da gazteak euskara alde batera utzi eta gaztelaniaz hitz egiteak sortzen duen kezka, eta bera da, hain zuzen, haurrak gerraurreko Tolosako lehen ikastolan matrikulatzeko deialdian erabiltzen zen arrazoirik nagusienetakoa.

Ia 70 urte beranduago, kezka hau, zertxobait aldatu bada ere, mantendu egiten da. Azkeneko urteetan ahalegin handiak egin dira euskararen alde, eta oraindik egoera normalizatu batera iristeko asko geratzen bada ere, euskararen ezagupen-maila handitu egin da. Baina ezagupenaren gehikuntza ez dator bat euskararen erabilpenaren mailarekin. Eta hizkuntzak Pernandoren egia bada ere, hitz egiteko dira.

Ikerketa honekin, hizkuntz erabilpenean parte hartzen duten faktoreen azterketa egin dugu, gazteek euskararekiko azaltzen dituzten jarreretan sakonduz. Eta gazteak aukeratu ditu, bi arrazoi nagusiengatik:

a) Euskararen alde hartu diren neurri desberdinen jasotzaile-rik garrantzitsuenak izanik, beren euskararen ezagupena beste adin taldetakoena baino altuagoa delako.

b) Beren erlazioak, eskolan, lagunartean, euskalduntzea lor-tzen badugu, gizartearen aitzindari bezala joka dezaketelako.

Ikerketa honek metodologikoki, bi ezaugarri nagusi ditu:

a) Hurbilketa mikrosoziologikoa. Hurbilketa puntualak, azterketa orokorrak osatu eta ezaugarri bereziengatik jarraipen handiago behar izan dezaketen taldeen azterketa posibilitatzen du.

b) Teknika kualitatiboa erabili da, eztabaida-taldeak, hain zuzen. Aberasgarria iruditzen bait zaigu, euskararen erabilpenaren eta euskararekiko jarreraren arazoa ohizkoak ez diren ikuspe-gietatik aztertzea.

Azkenik esan, ikerketa Tolosa eta Tolosaldean kokatzen bada ere, ondorioak antzeko ezaugarri soziolinguistikoak dituzten Euskal Herriko zonalde desberdinetara aplikatu daitezkeela.

Ikasketak euskaraz jasotako en jarrerak

Euskararen arazoa, arazo globala bada ere, azterketa egiteko garaian, eta emaitzak ahalik eta argien azaldu nahi ditugunez, zenbait gai nagusitan zatitu dugu:

1. Gazteen euskararekiko portaera. Euskararen egoera To-losan.
2. Hizkuntzaren presio soziala.
3. Euskararen mugak. Hizkuntzaren prestigioa.
4. Erakundeen euskararekiko portaera.
5. Hizkuntza eta egoera politikoa.
6. Kanpotarrak eta euskara.
7. Hizkuntzaren erabilerak.
8. Euskararen etorkizuna.

Gazteen euskararekiko portaera Euskararen egoera Tolosan

Hiru eztabaida taldetan parte hartzen duten gazteek nagusiztat genuen hipotesira jotzen dute berehala, euskararen ezagupenaren eta erabileraren artean gaur egun gertatzen den desorekara, alegia. Gazteek arazo hau hain garbi ikusteak, arazoaren indarra eta orokortasuna azpimarratzen du.

Gazteek diotenez, Tolosan azkeneko urteotan euskararen ezagupena handitu arren, erabilera murriztu egin da.

- "Gutxiago hitz egiten dela lehen baino..."
- Bai...
- Jakin bai, baino hitz egin gutxiago..."

Gazte hauek beren hezkuntza erabat euskaraz jaso arren, egoera eta momentu askotan gaztelaniaz egiten dutela aitortzen dute, baita euskaldunak tartean daudenean ere.

"Erderaz denok egiten dugu".

"Institutoan bezala, gaude erderazkoak eta euskarazkoak eta gu euskarazkoak errekreora atera eta erderaz hasten gara, eta igual bat euskaraz hasten da eta beste guztiak erderaz, o sea..."

"Eta batzutan izaten da, ez? Ba, hori, ba norbaitek esaten du, 'bueno, gaur, gaurtik, hasi behar dugu ya denak euskaraz hitz egiten, zergatik... ya euskaraz hasi naiz gaizki ibiltzen', eta holako gauzak... Bi hitz esaten ditugu eta gero berriz ere erdarara".

Azkeneko esaldian somatzen den bezala, hizkuntz erabileraren jarrera aldatzeko oztopo handiak topatzen dituzte gazteek beren eguneroko bizitzan.

"Guk euskaraz hitz egin nahi bagenu... nahi, nahi dugu, baina..."

Gazteen arteko euskararen erabilera murrizta bada ere, ares-tian esan dugun bezala, eta gehienek gaztelaniaz askotan egin arren, Tolosako gazte gehienek euskara, maila desberdinetan bada ere, (ulertu, nola hala hitz egin, menderatu...) badakitela somatzen dute.

"Nik uste dut Tolosan benetan jendeak... gehiago dakiela gazteen artean euskaraz, nahiz eta ikastolara ez joan eta euskaraz ez ikasi".

Zergatik ez datoz bat orduan ezagupen eta erabilpen-mailak Tolosako herrian? Zergatik erabiltzen dute orduan gaztelania sarritan hizkuntza nagusi gisa, euskaraz hain ongi dakiten gazteek?

Ondorengo puntuetan galdera hauei erantzuna ematen saiatuko gara.

Hizkuntzaren presio soziala

Tolosako gazteak, hitz egiteko garaian hizkuntza bat aukeratu behar dutenen, bi eratako presio sozialak jasaten dituztela konturatzen dira:

- Gaztelaniara bultzatzen duen presio soziala.
- Euskarara bultzatzen duen presio soziala.

Euskal gizartean gazteek gaztelaniaren nagusitasuna garbi ikusi arren, ez dute hori presio sozial bat bezala arrazionalizatzen: lagunartean euskaraz ez dakien norbait badago, gaztelaniara joko dute segituan; Tolosako komertzioetan euskarak lekurik ez duenez ere berdin, etab.;

“Denda batera joaten zara eskatzera eta, euskaraz eta ‘oye, que no te entiendo...’ Ba askotan zu erderaz hasten zara. Esaten duzu igual ez dit ulertzen eta erderaz eskatzen diozu.”

Gazteentzako, gaztelaniaren aldeko presio sozialaren beste alderdi bat helduen hizkuntzarekiko portaera da. Gazteen inguruan bizi diren helduak beti eredu izan dira haientzako, gazteek helduek hauen portaerak kopiatzen dituztelarik. Honengatik, inguruan mugitzen diren helduen portaerak gazteengan jokabide batzuk finkatzeko oso garrantzitsuak dira hizkuntzaren arazoan. Tolosako helduek gaztelaniaz hitz egiten dutenean, gazteek, euskaraz zergatik hitz egin behar duten galdetzen diete beren buruei.

“Eske denak... bi maisu badaude erderaz egiten dutenak. Denak erderaz egiten dute. Eta hori ez dugu esango orduan gazteen artean bakarrik gertatzen dela, helduen artean ere gertatzen da.”

Adin gehiagoko gazteek (3. BBB eta UBIn dabiltzanak) helduengatik datorren gaztelaniaren aldeko presio hau gazteagoek (1. eta 2. BBBn dabiltzanak) baino argiago seinalatzen dute.

Gaztelaniaren aldeko presio hau gazteek ez dute kontzienteki presio sozial bat bezala sentitzen, egoera horiek gaztelaniaren aldeko “joera” edo “tendentzia” bezalako hitzekin justifikatzen dituztelarik. Beraz, hizkuntz presio hori gazteek inkontzienteki jasaten dutela esan genezake. Hau horrela gertatzea euskararen normalizazioaren prozesurako kaltegarria gertatzen da, presioa kontzienteki sentituko balitz, errezagoa izango bait litzateke bide horretatik irteteko neurriak hartzea. Presio hori kontzientea ez denean, ezin dira aurkako neurriak proposatu, ezin bait da ezer egin “gertatzen ez den” zerbaiten aurka.

Pertsona batek beti portaera bera errepikatzen badu, azkenean ohitura bihurtuko zaio eta jokaera bat ohitura bilakatzen denean, guztiz zaila izaten da aldatzea, are gehiago ohitura hori gizaratean ongi ikusita dagoenean. Fenomeno hau gertatu da Tolosan gaztelaniaren erabilerarekin: presioak gaztelania erabiltzera bultzatu du eta erabilera hori azkenean ohitura bihurtu da. Gazteek barneratu egin dute jokaera hori (presio inkonzientea) ohitura bihurtuz, eta ondorioz erosoagoa egiten zaie gaztelaniaz hitz egitea, irakurtzea, telebista ikustea...

“Lau lagun euskaldun dituzu eta lagun bat baduzu euskaraz ez dakiena, ba harekin nahi eta nahi ez egin behar duzu, eta erderaz asko hitz eginez ba azkenean ohitura hartzen duzu.”

“Nik ohitura gehio daukat TV espainola ikusteko. Nik pelikula bat euskaraz baino erderaz nahiago dut ikusi.”

“Hasieran apur bat kostatuko zitzaigun euskaraz irakurtzea, zeren ohituratuta gaude erderaz irakurtzea.”

Gazteak erlazio berriak egiteko momentuan erabiliko duen lehenengo hizkuntzaren hautaketa oso garrantzitsua da. Euskaraz hasten den erlazio batek euskaraz jarraitzeko posibilitate handiak ditu, eta alderantziz, gaztelaniaz hasitakoak gaztelaniaz jarraitzeko posibilitate handiak ditu, nahiz eta euskaldunen artean izan.

“Hori ohitura da. Pertsona batekin hasten bazara beti erderaz hitz egiten, nahiz euskaraz jakin, erderaz jarraituko duzu hitz egiten”.

Hizkuntzaren hautaketan presio soziala gaztelaniaren alde dago, eta ondorioz ohiturak finkatzean gaztelania saritzen du, zeren jendeak gaztelaniaz hitz egiteko ohitura badu, aurrean dituen pertsonak normalki gaztekeraz hitz egingo diote ohiturak haustea zaila bait da.

Ohiturak, jokaera inkonzienteak beraz, oztopo larria dira euskararen normalizaziorako, ohituren norabidea aldatzea zaila gertatzen bait da. Gaztelaniaren presio honi kontra egiteko “euskarazko” ohiturak sortu beharko dira. Ekintza hauek aurrera eramateko sasoi hoberena gazteak “kaleratzen” direnekoa da. 12-14 urterarte gazteak batez ere etxean eta eskolan mugitzen dira baina gero kalera irten eta erlazio berri asko finkatzen dituzte. Erlazio berri hauetan euskarak, hizkuntza nagusia izatea lortuko balu, gaztelaniaren presioaren aurkako borrokan aurre-erapauso handi bat emango litzateke.

Gazteek, gaur egun gaztelaniaren alde dagoen presio sozialaz aparte, euskara bultzatzen duen presio sozial bat ere somatzen dute. Euskararen aldeko kanpainak egiten direla, adibidez, ikusten dute.

Euskararen aldeko presio honek hiru ezaugarri ditu:

- *Presio instituzionala*: Kanpaina eta proiektu gehienak gazteen bizitzatik kanpo dauden erakundeetatik zuzentzen dira.
- *Kontzientea*: Presioa dagoela kontzienteki konturatzen dira, gaztelaniaren aldeko presioaz ez bezala. Gazteak, euskara bultzatzeko ekintza batzuk eratzen direla konturatzen dira.
- *Antzua*: Presioaren emaitzak ez dira positiboak, gazteen ustetan. Presio honi buruz hitz egiterakoan gazte batek hau dio:

“Eske, hasiera, hasiera, puff!, hasiera aspaldi eman zitzaien eta oraindik eske ez degu ezer egin”.

Ekintza hauek ez dute euskararen erabilera bultzatzea lortu eta porrot honek nolabaiteko frustrazio sentimendua sortarazten die gazteei.

Beraz, puntu honekin amaitzeko, euskararen alde dagoen presioak gaztelaniaren alde dagoenak baino askoz indar gutxiago duela esan dezakegu. Ingurune erdaldunak gazteak gaztelania erabiltzera bultzatzen ditu, euskaraz aritzea zaila bihurtuz, eta euskararen alde hartzen diren neurriak indargabetuz.

Gaztelaniaren aldeko, indar presio eta ohitura hauek ez dira bapatean azaldu gure gizartean. Hurrengo puntuan indar horietaz arituko gara, eta konkretuki, gazteek nola-hala karakterizatu dituzten indarrez.

Euskararen mugak. Hizkuntzen prestigioa

Gazteen ustetan, euskara mugatuta aurkitzen da Tolosako gizartean. Muga hauek hizkuntzaren funtzioetan daude (euskarak “ez du balio” esparru edo arlo batzutan interaktuatzeko), eta ondorioz euskara esparru batzutaraz baztertuta geratzen da, beste batzutan lekurik ez duelarik.

Gazteen hitzetan euskara zein lekutan eta gaztelera zein lekutan erabiltzen dituzten ikusten badugu, euskara eta gaztelaniantzako ondorengo esparru hauek definituko genituzke:

- Euskara etxean, herri txikietan eta ikastolan erabiltzen da nagusiki.
- Gaztelania berriz, hirian, ikastola edo eskolatik kanpoko hezkuntzan (goimailakoa eta mota desberdineko ikastaroe-tan), zentru ofizialetan eta erakunde garrantzitsuenetan, "lantoki hoberenetan", kirola egiteko lekuetan, kalean eta festa-giroan.

Euskara eta gaztelania zein girotan diren nagusi ikusita gero, gaur egun gazteentzat euskara ez dela hizkuntz normalizatua esan daiteke. Sentimendu honen ondorioz larriena euskararen beharra ez sentitzea da; Tolosan bizitzeko euskara jakitea ez du-te beharrezkoa ikusten. Euskararen muga guzti hauek, gure gi-zartean hizkuntzarik prestigioatuena gaztelania dela eta ez euska-ra esan nahi dute.

Ondoren, gazteek gehien azpimarratzen dituzten mugak azal-duko ditugu:

Euskara herri txikien hizkuntza da

Eztabaida hauetan parte hartu duten gazteek segituan markatu dituzte Tolosarren eta inguruko herrietakoen hizkuntzarekiko joera desberdinak. Herrietako jendeak euskara gehiago erabiltzen du bere komunikazioetan.

"...baina kanpotik etorritakoak, herri txikietatik eta, gehiago hitzegiten dute euskaraz".

Tolosako gazteek beste desberdintasun bat ere topatzen dute euskararekiko beraien eta herri txikietako gazteen artean: hauek euskalkia erabiltzen dute, eta Tolosako gazteek ordea, ez.

Orokorrean, bai Tolosako gazteentzat bai inguruko herrieta-koko gazteentzat ere, hiritarra izatea elementu desiragarri eta posi-tiboa da (Tolosa=Hiria), eta herrikoa izatea ordea ezaugarri ne-gatibo bat da (prestigio sozial handiagoko marka da Tolosakoa herri txiki batekoa izatea baino). Euskara, eta konkretuki "euskara herrikoa" erabiltzea "herritarra" izatearen marka bi-hurtzen da, eta marka negatiboa gainera. Euskara batuaz eta

batez ere gaztelaniaz aritzea berriz, hiritarraren marka bezala hartzen da beraz, positibotzat.

Horrela, euskara "herritarren" marka (marka negatiboa) garrantzitsuenetako bat denez, alde batera uzten da egoera askotan eta bere ordez gaztelania (herriko jende gehienak euskara batua ez bait du ongi ezagutzen) erabiltzen da. Beraz, herriko gazteek Tolosak beraientzat errepresentatzen duen bizimoduan integratu nahi badute, Tolosara etortzean beren nortasun-adierazleak alde batera utzi behar dituzte, eta hauen artean, garrantzitsuenetako bat euskara. Gazte hauei, gaztelania Tolosako giroan sartzeko giltzarri suertatzen zaie.

"Nik ezagutzen dut zenbait jende, denak bezala, igual herrikoak etorri Tolosara eta euskaraz, euskaraz ondo jakin, eta euskaraz hitz egin beharrean ba erderaz hitz egiten dute".

"Gero hemen herri txikitatik handiago batera etortzen zara eta euskaraz hitz egiten badezu gutxiago zarela pentsatzen da, ez dakit, gaizki ikusi, ez dakit. Herri haundi batean erderaz hitz egiten da eta".

Herrietako jende askok Tolosara etorritakoan ikasi eta menderatu du gaztelania.

Gaztelania ikastea beharrezkoa zaie "kaxero" izan nahi ez badute. Tolosako gazteak baino gutxiago sentitzeak lotsa ematen die eta gaztelaniara bultzatuak izaten dira:

"Esan nahi dizut bere burua sentitzen dutelako kaxero hitz egiten dute erdera".

Tolosa inguruko gazte batek esaten duena adierazgarria da:

"...etortzen direnak, zergatik, Tolosatik kanpo ia herriska txikiak bait dira eta hona etortzen zera eta hirian euskaraz hitz egitea... Denak erderaz hitz egiten dute, eta orduan... berak esaten zuena, lotsa bat ematen duela hitz egitea".

Eskualdeak, inguruak, ez du lortu Tolosa euskalduntzea. Gazteek, alderantziz, Tolosak bere ingurunea erdalduntzea, bilakaera honen azkeneko urrats posible bezala planteatzen dute.

Euskara ez da goimailako hezkuntzaren hizkuntza

Tolosan hezkuntza euskaraz jasotzen ari diren gazteentzat, hezkuntza euskaraz jasotzea garrantzi handiko faktorea da, euskara erabiltzera bultzatzen duen faktore bakarra ez izan arren.

“Txepetxek” dioenarekin bat etorritz, gazte hauek ezagupenaren maila on bat izateak erabilera eta baita ere hizkuntzarekiko motibazioa bultzatu eta indartu egingo ditu. “Ezagupena” ez da hizkuntza beraren ezagutza bakarrik, baizik eta gaurkotasunezko eta gai desberdinez hizkuntza horretan ere hitz egin ahal izatea.

Horrexegatik, gazteen ustetan, hezkuntza gaztelaniaz jasotzeak euskaldun bat bere bizitzako egoera arruntetan ere gaztelaniaz aritzera bultzatu dezake. Gaztelaniaz eskolatuak izan direnen eragina, gazteek oso negatibotzat jotzen dute, pertsona horien bidez gaztelaniak giro guztietara sartzeko aukera izan bait du Tolosan.

“Nere auzoan beti euskaraz, beti, beno, orain dela urte batzu arte, eta zeran, ...² ibiltzen ziren batzuk eta horiek izango ziran lehenak, horrela erderaz hitz egiten zutenak, eta pixkanaka pixkanaka joan da sartzan... orain euskara gutxi hitz egiten da.”

“..euskaraz ongi dakite, zeran ...² ibiltzen direnak, baina beti erderaz komunikatzen dira.”

Tolosako hezkuntzan euskara egoera ez normal batean aurkitzearen arrazoi bezala, gazteek ondorengo hutsuneak aipatzen dituzte:

- Euskarazko hezkuntzan, orain dela gutxi urratu da bidea liburugintzan eta testuliburuetan, beraz adin bateko gazteek arazoak izan dituzte hezkuntza guztia euskaraz jasotzeko.
- Gaur egun irakasle direnek bere ikasle denboran ez zuten hezkuntza euskaraz izan, eta egoera hau orain beren ikasleek nabaritu egiten dute.
- Azkeneko urteetan irakaskuntza publikoan euskara sartuta egon arren, oraindik jasotzen duen tratamendua ez da guztiz egokia. Horrela, asignatura batzutan irakasleak falta dira, beste batzutan irakasleen euskara maila oso baxua da. Honelako egoerek irakaskuntza bera errepresentitu erazi egiten dute, lortzen den euskararen ezagupena eta gai guztietan euskaraz funtzionatzeko posibilitatea ere murriztuz.
- Euskal irakaskuntzak duen hutsunerik handiena eta larriena behe eta erdimailako euskal hezkuntzak goi-hezkuntzan jarraipenik ez izatea da. Hutsune honek, gazteen ustetan, izugarritzko muga suposatzen du euskararentzat, goimaila-

ko hezkuntzan euskara infrabalaratuta egoteak ate asko ixten bait dizkio gizartean euskarari.

Orain arte hezkuntza guztia euskaraz jaso eta UBItik aurrera berriz gaztelaniaz aritu beharrak nolabaiteko frustrazio sentsazioa sortarazten du gazteengan, beraien ustetan, karrerak gaztelaniaz egiteak giro horietan gaztelaniaz jarraitzea suposatzen bait du. Egoera hau ikusita, nahikoa ezkor ikusten dute etorkizuna, gisa honetako esaldiak esaten dituztelarik:

“Nik ez diot ikusten irtenbiderik euskarari”.

Hezkuntzan euskarak topatzen dituen mugez aritzean, gazteen diskurtsoan desberdintasun bat nabaritzen da adinaren arabera: zaharrentzat, —UBI ikasten dutenentzat— hezkuntzari buruzko gaiak askoz garrantzi handiagoa du gazteentzat baino.

Lanbide prestigiatuenean hizkuntza ez da euskara

Gazteen ustetan profesio prestigiatu eta berriak (exekutibok, injineruak...) ez daude euskararentzat irekiak.

“Ba, adibidez, nik usten det orain exekutiboen artean desde luego ez dutela euskaraz hitz egingo, eta goimaila batean gutxiago.”

Beraz goimailako lanbideak eta lanbide berrienak gaztelanien esku daude.

“Segun ze lanpostuan ibiltzen zaren eta segun ze karrera dezun behintzat bai. Enpresariales bat ikasten badezu neri ez zait iruditzen euskaraz egingo duzunik”.

Eta euskara erdimailako karrera eta lanbideentzat geratzen da.

“Nik hori esaten det, goimailako baten... ez det ikusten euskaraz, izango da beti herriaren artean edo... maila erdikoan.”

Azpitarratzekoa da gai honetaz hitz egiterakoan duten irudiari kontra egiteko ez dutela borondaterik azaltzen. Etsi egiten dute egoeraren aurrean. Nahiago dute “exekutibo” izateko gaztelania ongi ikasi, “euskal exekutibo” izateko esfortzua egite baino.

Euskarak ez du balio gauza guztiez hitz egiteko

Gazteen ustetan, euskara esparru batzuetatik kanpo gelditzeaz gain, euskaraz hitz egiten den esparruetan ere euskarak

erdarari lekua utzi behar dio. Esparru hauetan, gazteek beste muga bat jartzen diote hizkuntzari, hizkuntz bitartekoen faltarena, hain zuzen ere.

Eguneroko gai arruntetan euskara erabiltzen dute, baina gai konplexuagoetan gaztelaniara pasatzen dira.

“Eguneroko gauzetaz ba igual euskaraz arituko zara, baino hasten zara ia zailtasun gehiago daukaten gaietaz eta orduan erdarara jotzen duzu”.

Gazte hauei gai edo arlo berezietan euskara ez zaie espresatzeko baliagarria gertatzen eta gai batzuez euskaraz hitz egiteko ez dituzte espresioak ezagutzen.

A) “Adibidez politikaz edo Jainkoaz ere bai hitz egiten dugunean erderara jotzen dugu.

B) Eta insultatzeko ere bai.

A) Bai.

B) ‘Puto cabrón’ eta hola hori dena erderaz, euskaraz nik... es dakit inori...

D) Nik ez det ezagutzen gainera, beno...

B) Eske terminologi guztia ere erderaz dago. Politikaz ere bai...”

Euskararen hizkuntz bitartekoen faltaren gaia zaharrenek bakarrik planteatzen dute, gazteenek honetaz ezertxo ere esaten ez dutelarik. Portaera honek bi arrazoi eduki ditzake: Bata, gazteenek hizkuntz egokiagoa izatea, gai guztiez euskaraz aritzeko euskara-maila nahikoa lortu dutelako, eta bestea, gazteek gai berezietan eta espazio linguistiko bitxietan oraindik gehiegi murgildu ez izatea.

Euskara ez da beharrezkoa sentitzen

Euskarak dituen muga ondorioak bi dira:

– Prestigio soziala gaztelaniak edukitzea.

– Euskararen beharra ez sentitzea.

Euskaraz hitz egiteak ez du prestigio sozialik ematen gazteen artean, alderantziz, gaztelaniak du prestigioa, eta euskarak nabardura ezkorra ematen du.

“Esan dezakegu kaxero bat zerala euskaraz hitz egiten baduzu.”³

Gazteak gure gizartean euskara prestigiatzeko mugimendu bat dagoela konturatzen dira baina oraindik ez dute gehiegi sine-tsi mugimendu horretan.

“Neri iruditzen zait igual gure artean, jende gazteen artean igual ba... gutxiago bezala baloratzen dela baino gero eta gehiago baloratzen da euskaraz hitz egitea, baino, horrela jende gazteen artean eta, ez, ez da baloratzen”.

Gazteei beraz, oraindik gaztelania euskara baino egokiagoa iruditzen zaie gizarteko goimailetara iristeko.

“Beti geroz eta maila gorago, geroz eta erderako joera handiagoa egon da”.

Gaur egun egoera horrela egon arren, badirudi gazteen artean, emeki-emeki bada ere, prestigioa lortzen ari dela, “kaxeroen” hizkuntzaren irudia apurtuz, gazteen arteko hizkuntzarik prestigioetsuena izateko oraindik gertu ez badago ere.

- A) “Nik uste det gauzak aldatzen ari direla, bainan, orain arte erderaz hitz egiten bazenu handiago zinela ematen zuen, beste maila bat zenuela, euskaraz hitz egiten zutenek maila baxuagoa zutela.
- B) Orain ez, beharbada hori aldrebes gertatzen da orain...
- D) Lehenago igual erderak askoz ere kultura edo maila handiagoa zuen euskarak baino, orain euskara ari da pixkanaka pixkanaka maila hori lortzen.”

Aldaketa hau gazteagoen artean zaharren artean baino gehiago nabaritzen da.

Bigarren ondorioa euskararen beharra ez sentitzea da:

“Eta beharra ez dute sentitzen jende askok euskaraz hitz egiteko”

Euskaraz jakin gabe bizi gaitezke, eta gure erlazio sozial guztiak mantendu; gizarte honetan erdaraz jakitea behar-beharrezkoa suertatzen den bitartean, euskaraz jakiteak ordea ez du balio handirik.

Gazteen ustetan, pertsona eta erakunde euskaldunek euskara erabili eta bultzatuko balute, beharra sortaraziz, gure gizartean eta konkretuki gure herrietan hizkuntzaren normalizaziorako aurrerapauso handi bat emango litzateke.

Gaur egun, erdaldunek ez dute euskara ikasi eta ez dute erabiltzeko beharrik sentitu, giro guztietan gaztelaniarekin bakarrik erraz konpondu direlako.

“Eske, beharrik ere ez, ez daukate beharrik euskara ikasteko, ez? Guk gazteleraz hitz egiten diegu... eske, berak ez dira ikusten behartuta, dakit, ez?”

Baina gure kaleetan, gure erakundeetan, gure herrietan, euskara hizkuntza nagusi bezala erabiliko balitz erdaldunak euskara ikastera eta erabiltzera behartuta sentituko lirateke.

“Ba denak euskaraz egingo bagenu eta horrek ikusiko luke ba... honbre, ikasi beharra daukat zergatikan bestela hokin ni nola ententituko naiz”.

Gazteen ustetan hau horrela gerta dadin eta behar hori sortarazteko, euskal hiztunen komunitateak berak presio egin beharko luke lan koordinatu baten bidez.

“Nik uste dut lehenengo euskara dakitenek hasi beharko luketela, hori, euskal giroa sortzen”.

Euskararen aldeko ekintzei esker, erdaldun batzuk euskara ikasi dutela kontsideratzen dute. Gazteen ustez, ez dakien jendea arrazoi desberdinengatik hasten da euskara ikasten, hauen artean garrantzitsuena lanpostu baten beharra delarik (nahiz eta ez izan faktorerik erabakiorrena lanpostua bilatzerakoan). Behartze hau ez dute gaizki ikusten Tolosako gazteek, baina beraien ustetan, presio hau ez da oraindik handiegia gure herrietan, erdal hiztunek ez bait dute sentitzen euskararen behar handirik, eta askok eta askok euskararen ikasketa utzi egiten dute.

Erakundeen portaera euskararekiko

Gazte hauek, eta neurri handiago batean BBBko 3. mailakoak eta UBIkoak, erakunde publikoetatik (udaletxea, Eusko Jaurlaritzak) euskara bultzatzeko eta prestigiatzeko egiten diren kanpainez ohartu dira (“Lehen hitza beti euskaraz”, adibidez). Beraz, erakunde ofizialek euskara normalizatzeko ahalegin batzuk egiten dituztela ikusten dute.

“Udaletxearen aldetik... usten dut badagoela kanpaina bat euskararen alde, bai ari dira dexente bultzatzen...”

Baina gazteen ustez, erakunde publiko hauen portaera praktikoa, eguneroko portaerak, euskararen kontra egiten du lan: alde batetik erakunde horiek euskararen aldeko kanpainak bultzatzen dituzte, baina bestalde barne-erlazioetan guztiz edo ia guztiz gaztelaniaz funtzionatzen dute.

“Orain Eusko Jaurlaritza hasi da euskaraz... euskara bultzatzen, baina sistema horretan, nada!”

“Udaletxean eta horrela bai, denak euskaraz jakin behar dute, baina denak erderaz”.

Erakundeak, teoria praktikara eramateko garaian kontraesan batean erortzen direla konturatzen dira. Kontraesan honek frustrazio handi bat sortertzen du gazteengan, euskararen aldeko kanpainarekin batera “gezur sozial” bat hedatzen ari dela ikusten dute eta. Horregatik, kanpaina hauek moda hutsa bailiren kontsideratzen dituzte.

“Baina orain moda bezala da, ez dakit, komunikabideetan ‘hitz egin zazu euskaraz’, ‘hitz egin zazu euskaraz’, eta.”

Gezur sozial hori partidu eta pertsonaia politikoen portaeretan ere azaltzen da gazteek diotenez. Publikoaren aurrean guztiz euskararen alde azaltzen dira eta gero, beren eguneroko barne-funtzionamenduan, hitzaldietan, komunikazioetan... gatzelarniaz aritzen dira.

“Baino badaude politiko batzuk hor euskaraz oso ondo dakitenak eta erderaz hitz egiten dute. Horiek behintzat bultzatuko balute ba hori gehiago izango litzateke, baino eske ez dute ezer egiten bultzatzeko.”

“Euskara asko egin behar da, euskara asko bultzatu behar da, gero igual zerbait esan behar dute eta gehienera ere esaten dute pixka bat euskaraz eta beste hiru laurdenak erderaz. Hori gertatzen da”.

Gaurko euskal gizartean bizi den gezur sozial honek, hots, teoria eta praktikaren artean dagoen aldeak, oso ondorio negatiiboak izan ditzake Euskal Herriko gazteengan eta euskara beste esangurarik gabeko tresna politiko bat dela jotzera bultza ditzake gazte hauek.

Azkenik, buruzagi politikoei euskara ongi menperatu behar-ko luketela esan behar da. Gazteen ustez, ez erakunde politikoei ez eta agintari politikoei ezin dute euskara erdipurdika hitz egin edo euskalki bat bakarrik jakin, zeren kasu hauetan ez lukete “agintari itxura” emango. Botereak ematen duen prestigioaren jabe izateko euskara batuan komunikatu behar-ko lirateke, gero euskalki bat jakingo balute ere.

Hizkuntza eta egoera politikoa

Gai honek espazio txikia okupatzen du gazteen diskurtsoan, bai gazteagoek bai zaharragoek garrantzi gutxi ematen diotelarik. Horrelako eztabaida batean gai honi garrantzi gutxi emateak oso esangura handia du, zeren gurea bezalako gizarte politizatu honetan, badirudi gazteak koordenada politikoetatik alde egiten hasi direla, eta gehiago kezkatzen direla bizitza konkretuaz, eguneroko praktikotasunak sortzen dituen arazoez. Gazteek politikari buruz azaltzen duten ardura eskasa pentsaezina zatekeen duela urte gutxi. Halere, zaharragoek, egoera politikoaz oraindik ere aipamen kontatu batzuk egiten dituzte.

Horrela, PSOE euskararen aurka aritzen den alderdi politiko batekin identifikatzen dute. PSOEko partaide bati buruz hau diote:

“Baina euskaraz baldin badaki ere erderara joko du, bera espainola sentitzen da, ez da euskalduna sentitzen, beraz erderaz hitz egingo du”.

“Espainola=Euskararen kontrako” identifikazio honek bizirik dirau gazteen artean. Baina bestalde, Tolosako gazteek zailtzean jartzen dute ere “euskal partiduek” euskara “salbatzeko” errekurso guztiak izango balituzte ere, euskara “salbatuko” lukekenik. Horrela, partaide batek egoera politikoaren aldaketak, autodeterminazioak, euskararen normalizazioa bideratuko lukeela esaten duenean, beste partaideek egoera politikoaren aldaketak bakarrik ez lukeela euskararen gaurko egoeraren aldaketa suposatuko esanaz puntualizatzen du.

A) “Eske hizkuntza ez da bakarrik, hizkuntza dago gobernu baten barruan eta egoera baten barruan, o sea, Euskadi igual burujabea balitz, orduan bai, egongo litzatekeela euskararenganako joera oso bat, eta ez orain bezala.

B) Bai... ez burujabe bakarrik, euskalduna ere bai”.

Egoera politikoari buruzko aipamenak gutxi badira, hala dira ere euskararen aldeko kontzientziazio baten beharra azpimarratzen dutenak. “Kontzientziazioa”, euskararen aldeko joera kontzientea izango litzateke, nahikoa gauza lausotsu eta zehazgabea. Gazteen ustez, euskararekiko kontzientziatuta egotea, euskara mugatzen duten oztopoak gainditzeko lagungarri izango litzateke.

“... zergatik ez da bakarrik euskaraz jakitea, ze izan behar dena da kontzientzi bat edukitzea euskaraz hitz egin behar duzula”

“Nik ikusten deana da kultura daukan jendeak nahiz ikastolan ez ikasi ba euskaraz hitz egiten duela, eta hori igual da kontzientzia daukalako”.

Gazteen ustetan “herritarra” den pertsona batek kontzientzia gutxi behar du, euskara erabiltzeko oztopo gutxiago bait du. Goimailan dabilen pertsona batek ordea kontzientziario handiago behar du, euskara erabiltzeko oztopo gehiago aurkitzen bait du.

Hala eta guztiz ere, gazteentzat hizkuntzaren beharra kontzientziarioaren indarra baino garrantzitsuagoa da hizkuntza aurrera eramateko.

Kanpotarrak eta euskara

Gazteen ustetan, kanpotarrak Euskal Herrira lanaren bila etortzeak euskararen normalizaziorako oztopo bat suposatu du, kolektibo horrek giroa erdaldundu egin duelako, gaztelaniaren beharra gehiagotuz. Gazteen kolektiboan, gazteagoek zaharagoek baino gehiago markatzen dute kanpotarren eragina euskararen gaurko egoeran. Zaharagoek ez diete kanpotarrei botatzen euskararen ez-normaltasunaren erru guztia eta ez dute uste Tolosan kanpotarrak euskararen normalizaziorako oztopoak jarritzen dituen faktore garrantzitsuenetakoa direnik.

Aurreko puntu batean esandakoa errepikatuz, gazteen ustez euskal hiztun komunitatearen esku dago kanpotarrak eta orokorrean euskaraz ez dakitenak euskarara erakartzea. Komunitate honek euskararen beharra sorterazi behar du, behar honen bidez erdal hiztunen komunitatea euskarara bultzatuz.

“Niri iruditzen zait aurrena euskaldunak hasi behar dugula guk, dakigunok, euskaraz hitz egiten, zergatik horrela sentituko lukete, neri iruditzen zait, euskaraz ez dakien jendeak sentituko luke behar bat euskaraz egiteko”.

Gazteek diotenez, lehenengo belaunaldiko etorkinak eta Euskal Herrian “de paso” dauden kanpotarrak normalean ez dira integratuko euskal komunitatean, ez dute euskara landuko, baina bigarren eta hirugarren belaunaldikoak ordea agian saiaturiko

dira gure komunitatean integratzen eta beraz saia daitezke euskara lantzen. Horrela, gazte hauentzat, oso esanguratsua da etorkin helduek beren seme-alabak ikastolara bidaltzea.

Somatzen dute horrelako kasuak urtetik urtera gehiago direla, eta beraz, bigarren eta gehienbat hirugarren belaunaldiko etorkinak gero eta euskaldunagoak izango direla.

Esan daiteke kanpotarrak ez direla euskararen normalizazio-arentzat oztoporik handiena. Tolosan kanpotarrena baino arazo larriagoak badaudela somatzen da gazteen arrazonomenduetan.

Hizkuntzaren erabilerak

Orain arte euskarak Tolosako gizartean bere funtzio komunikatzailea nola betetzen duen ikusi dugu, hori bait da lan honen alderdirik garrantzitsuen. Puntu honetan gazteek euskarak betetzen dituen beste funtzioei buruz aipatutako eritziak jasoko ditugu.

Gazteak ohartu dira, euskarak askotan funtzio sinboliko bat besterik ez duela betetzen, identifikazio ("euskaldun" marka) tresna bat dela.

"...gauzak orain egiten dira euskaraz. Adibidez agurtzeko eta horrela beti 'agur'. Nahiz eta erdalduna izan 'agur' esango dizu, ez dizu esango 'hasta luego', ez. Eta 'bi gorri', (...), 'bi mosto', beno hori dena euskaraz erabiltzen da nahiz eta erdalduna izan jendea".

Gazteek ez dute asko esan beste funtziorik bete ezean hizkuntza batentzat hain arriskutsua gerta daitekeen funtzio honi buruz. Honek, portaera honek presentzia eskasa adierazi dezake irakaskuntza euskaraz jaso dutenen artean.

Baina gazteagoen diskurtsoan euskararen funtzio sinbolikoa beste era batera ere azaltzen da, gordetzeko zerbait dela bait diote:

"Euskara gorde egin behar da".

Euskara kutxa edo museo batean gorde behar da altxor miragarri bat bezala. Hizkuntzari bere funtzio sozialak ukatzen dizkio pentsakera honek, eguneroko gertaera sozialeko baliagarritasuna kenduz eta funtzio sinbolikora baztertuz.

Bestalde, euskara erdaldunen aurkako arma bat bezala erabiltzearen kontra azaltzen dira. Erabilera hau euskararen normalizaziorako oztopo bat gerta daiteke, euskaldun ez den jendea "guardian" jarri daitekeelako, euskararen gorapenaren aurka azalduz. Euskara, gazteen ustetan, ezin da tresna iraingarri bat bezala erabili.

"Euskararenganako gorrota bat sortzen da, ze zuk esaten dezu 'ijito horiek', ez dakit, ezin zara horrela ibili 'zu erdalduna zara, ba beste aldekoa zara', ez dakit. Hori oso postura negatiboa da, bai guretzat baita beraientzako, gorrotoa sortzen da eta."

Euskararen etorkizuna

Aurreko orrietan ikusi dugunez, Tolosako gazteen ustez euskarak ez du egoerarik onena gaurko gizartean, eta gainera, egoeraren aldaketa oso urrun ikusten dute.

"Etorkizuna ezin da jakin baina hobekuntza bat neri ez zait iruditzen".

Bestetan ez dute somatzen aldaketarik.

"Nik ez det uste gaurko egoera aldatuko denik".

Beraz, orain arteko euskararen aldeko politika aldatzen ez bada, ez da egoera aldatuko.

"Eske hasiera, hasiera, puf! hasiera aspaldian eman zitzaion eta oraindik eske, ez degu ezer egin".

Ondorioak

Gazteak oso kontziente dira euskararen ezagupenaren eta erabilpenaren arteko desorekaz. Tartean beti euskaraz ez dakien norbait dagoelako, edo eta "ohituraz", euskal hiztun asko gaztelaniaz mintzatzen da nagusiki.

Txepetxen ikasketen teoria erreferentzia bezala hartuta, esan dezakegu euskararen ikasketaren prozesuan traba edo etenak azaltzen direla⁴. Teoria honetatik begiratuta, eta gazteen artean egindako ikerketan oinarriturik, euskarak, gazteen artean, bi

traba argi eta garbi dituela esan dezakegu: traba soziala eta traba psikologikoa.

Traba soziala argi salatzen dute hezkuntza osoa euskaraz egiteko ezinezkotasuna aipatzerakoan. Euskara hedatzeko, hezkuntzaren bidez lortuko litzatekeen hizkuntzaren ezagupen sakon baten beharra dago. Ingurune euskaldunetan gazte guztiak beren ikastetxeetan euskararen ezagupen-maila nahikoa lortzea garrantzatu beharra dago.

Euskararen pertzepzioa sakontzeko ere beharrezkoa da ikasketa unibertsitarioak lehenbailehen euskalduntzea. Aipatu dugun bezala, frustrazio handia dakar batxilergo ikasketak euskaraz egin eta gero gaztelera pasa behar izatea.

Hasiera batean detektatzeko zailagoa bada ere, gazteen diskurtsoan presentzia garrantzitsua du traba psikologikoa. Traba honek, hizkuntzaren pertzepzio naturala barne-balorazio bihurtzea oztotutzen du, inferioritate konplexua sortuz.

Euskarak ez du prestigiorik gazteen artean. Helduen mundua gaztelera dela sentitzeak, gizartearen erreferentzia bezala jokatzen duten modelo edo eredu guztiak (politikoak, "exekutiboak"...) gaztelaniaz bizitzeak, euskararen muga fisikoak hain txikiak izateak, euskara behar ez izateak,... euskal hitzuna bere burua gutxiago dela sentitzera eramaten du, eta ondorioz euskararen desprestigiara.

Horregatik gazteak helduen munduan sartu nahi duenean egiten duen lehenengo gauza gaztelaniaz hitz egiten hastea da.

Euskararen desprestigioak gaztelaniaz hitz egiteko ohitura finkatzen du. Eguneroko erlazioetan ematen diren ohiturak aldatzea oso zaila denez, helburua, erlazio berria egiteko garaian euskaraz mintzatzeko ohitura sortzea litzateke. Horretarako gazteak helduen munduan sartzeko momentuan, edo "kaleratzean", euskararen aldeko ekintza praktikoak aurrera eraman beharko lirateke.

Hizkuntza baten prestigioa, hartu edo inguratzen dituen espazio linguistikoaren erabera dago. Hizkuntza batek funtzio gutxi betetzen baditu, prestigio txikia izango du, eta alderantziz. Prestigioaren gehikuntza beraz funtzio berriak eskuratzean datza.

Ikerketa honetan gazteek euskara etxean, herri txikietan eta ikastolan hitz egiten dutela ikusi dugu; kalea, hiria eta gaineran-

tzeko hezkuntza (goimailakoa eta beste motatako ikastaroak) gaztelaniaren esparru direlarik. Euskara, gainera, gai arruntez mintzatzeko erabiltzen dute, lengoia espezifikotarako "balio" ez duenaren ustetan. Horrela, etxean mintzatzeko egokia bada ere, "politikaz eta Jainkoaz" hitz egiteko gaztelaniara pasatzen dira, herritik hirira (Tolosara) datozenean, euskara alde batera utzi eta gaztelaniaz komunikatzen diren bezala.

Guzti hau, noski, euskararen desprestigioaren adierazgarri da. Zenbait kasutan euskara "marka" negatibo bat bihurtzen da. Euskal hiztuna "kaxerotzat" jotzen du, horrek duen karga peioratiboarekin, eta ondorioz gazteak euskara alde batera utzi eta gaztelaniara jotzen du.

Hau benetan grabea da. Euskararentzat normalizazio linguistikoa eskuratu nahi badugu, gaur egun ukatuak zaizkion espazioak eta funtzioak irabazi behar ditugu. Euskarak bere lurraldean zor zaizkion funtzioak lortu behar ditu, eta hori, euskararen munduan diharduten indar guztien lana koordinatuaz, euskal hiztun-komunitatearen eginkizuna da. Egoeraz jabetzea, egoera horri buelta emateko lehen pausoa da, hartzen diren neurriekiko askoz errezeptibitate handiagoa lortzen bait da.

Eta dirudienez, gazteen artean euskarak jasaten duen presio eta egoera minorizatua ez da oraindik kontziente. Euskararen alde hartzen diren neurriez oso kontziente diren arren, gaztelaniaren presioa "joera" edo "ohitura" bezalako hitzen atzean estaltzen dute, inkontziente da.

Egoera honen aurrean gaztea pasibo agertzen da, etsita dirudi. Lehen aipatutako traba psikologikoaren eraginez agian, gazteek ez dute egoeraren aurrean inolako protesta edo ekintza egiteko jarrerarik. Ez badute denda batean euskaraz hitz egiteko posibilitaterik, ba gaztelaniaz egiteko "ohitura" hartuko dute; "exekutiboek" gaztelaniaz hitz egiten dutela uste badute, gaztelania ikasiko dute "exekutibo" bihurtu ahal izateko, etab.

Jarrera honetan argi ikusten da gaurko gazteengan postura pragmatikoa zabaldu egin dela. Orain dela urte batzuk euskararen gaiak azaltzen zuen politizazio-maila txikitu egin da, eta gaur egun gazteek hizkuntzen alderdi praktikoa bilatzen dute. Euskararen militantziak behera egin duenean, euskara benetako eduki praktikoz bete behar da, gazteek bere balioaz jabe daitezten.

Euskararen militantzia desagertzeak eta pragmatismoaren gehikuntzak, gaurko gizartean ematen den "gezur sozialarekin" izan dezake zerikusia.

Administrazioak eta alderdi politikoek euskararen alde bultzatu eta agertzen dituzten neurri eta asmoen, eta errealtatean azaltzen dituzten portaeren artean gazteek ikusten duten alde edo diferentzia handiak, frustrazio eta engainu baten sentazioa sortarazten die. Gezur sozial honi erantzuteko erakunde politikoek proposatzen dituzten eta errealtatean betetzen dituzten gauzen arteko desoreka hori gainditu eta koherentzia gehiago lortu beharko litzateke.

L.A. / A.F.

¹ Tolosako lehen ikastolan haurrak matrikulatzeko atara zen deialditik. 1921ean, Patricio A. de Orcaiztegui (orduko parrokoa), Jose Azcue eta Isaak Lopez Mendizabal jaunek sinatua.

² Ikasketak gaztelaniaz nagusiki eskaintzen dituen ikastetxea aipatzen dute.

³ Gazteek, euskaraz egiten dutenen artean ere desberdintasunak egiten dituzte; euskara batua hitz egiten dutenek prestigio handiagoa dute euskara herrikoia egiten dutenek baino: "Adibidez gu, ikastolan ibiltzen garenak eta, euskara batuago bat daukagu, artifizialago bat daukagunok ba orduan ba euskaraz hitz egitea ez zaigu hain kaxeroa denik iruditzen."

Beraz hizkuntzaren prestigio soziala "continuum" bat bezala har daiteke:

<i>Prestigiorik txikiena</i>	I	I	<i>Prestigiorik handiena</i>
I -----			I -----
<i>Euskara herrikoia</i>		<i>Eusk. batua</i>	<i>Gaztelania</i>

⁴ Txepetxek "Un futuro para nuestro pasado" liburuan dioenez, hizkuntza baten ikasketan motibapenak, ezagupenak eta erabilpenak nahikotasun-maila bat lortu behar dute ikasketa hori bere osotasunean eta bete-betean eman dadin.